Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
196.zkia . 2007ko martxoa

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN

SAIHESBIDE BERRIA IREKI DA

(Argazkia: Fernando de la Hera)

www.hondarribia.org / argitalpenak / Hondarribia

Remigio Mendiburu eta Korrika

UDAL EUSKARA ZERBITZUA HONDARRIBIA

Badator KORRIKA 15. Karrantzatik Iruñearaino Euskal Herria gurutzatuko du, euskararen aldeko mezua barruan daraman lekukoa eskuz-eskuz txandakatuz.

Hondarribitik martxoaren 31n igaroko da, 20:45etan iritsiko da Mendeluko biribilgunera eta herriko kaleetatik igaro ondoren, Iruñearako bidea hartuko du, apirilaren 1ean amaitzeko.

Korrikaren lekukoa, Remigio Mendiburu eskulturagile hondarribiarrak egin zuen 1980ko lehen edizio hartarako. Ordutik, zurezko ikur esanguratsu hori ezin konta ahala eskuk eraman du alde batetik bestera, Joxe Miguel Barandiaranek 91 urterekin eraman zuen eta ordutik hainbat euskaltzale zahar eta gazte, kirolari, artista, politikari ezagun nahiz herritar xumeren eta ezezagunen eskuetan ibili da.



Aurten Remigio Mendiburu jaio zeneko 75. urteurrena ospatu dugu, eta Hondarribiko Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu bere omenez. Bihoakio Euskara Zerbitzuaren honen omenalditxo hau ere KORRIKArako lekukoaren egileari.

Lekukoa hartzeko garaia dugu aurten,
Arnasestuka
Euskaraz
Korrika gainera
Lekukoa hartzeko garaia dugu aurten,
Ahaztu ezazu
Erdara eta
Kalera atera
Lekukoa hartzeko garaia dugu aurten, bai
Ai, ama!
Emadazu, Remigio, zutitu nadin
Kokoriko nago-eta!
Lekukoa hartzeko garaia dugu aurten
Arima
Eskua
Kirola

Argitaratzailea:
Udal Euskara Batzordea
Erredakzioa/publizitatea:
ZIF & Comunicación
zifcomunicación@terra.es
Tel.: 943 63 81 28
Kolaboratzaileak:
Koldo Ortega
Ainara Elizondo
Martin Iturbe
Irati Goikoetxea
Argazkiak:
Hondarribiko Udala
ZIF & Comunicación
Fernando de la Hera
Floren Portu
Maketazioa:
Usoa Ramírez Melón
Inprimategia:
Antza
L.G. SS 122/86

TXANDAKO BOTIKAK MARTXOAN ETA APIRILEAN

25- Alameda Harresilanda, 9 . . . . . .943 645798
1- Erauskin San Pedro, 22 . . . . . .943 641018
5- Almajano Mendelu, 26 . . . . . .943 640068
6- Alameda Harresilanda, 9 . . . . . .943 645798
8- Mayi Martinez Almirante Alonso kalea, z/g 943 642191
9- Iraola San Pedro, 5 . . . . . .943 641027
15- Iraola San Pedro, 5 . . . . . .943 641027
22- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea 943 644316
29- Almajano Mendelu, 26 . . . . . .943 640068

TXANDAKO OKINDEGIAK MARTXOAN ETA APIRILEAN

25- Arratibel Mendelu auzoan 943 641975
1- Garmendia Portuan 943 641136
5- Martinez Kale Nagusia, 17 . . . . . .943 641212
6- Arratibel Mendelu auzoan 943 641975
8- Garmendia Portuan 943 641136
9- Arratibel Mendelu auzoan 943 641975
15- Garmendia Portuan 943 641136
22- Martinez Kale Nagusia, 17 . . . . . .943 641212
29- Arratibel Mendelu auzoan 943 641975

Eusko Alkartasunak Txingudi Gipuzkoako Partzuergoan sartzea eskatuko du

Hondarribiko Eusko Alkartasunak Txingudiko Mankomunitatea Gipuzkoako Partzuergoan sartzeko eskaera formalki egin dadila eskatuko du, alderdiak Hondarribiko Alkate izateko hauteskundeetan aurkeztuko duen Ion Elizaldek aditzera eman zuenez.

Ion Elizalde prentsaurrekoaren une batean

"Pasa den legealdian zaborrak tratatzeko hainbat ekimen jarri ziren martxan, Europako direktibak Gipuzkoako zabortegiak epe ertainera itxi egin beharko zirela zioelarik. Ordutik aurrera gauza asko gertatu dira, Txingudiko Mankomunitateak bere proiektua hasi zuen, bestetik San Markosek bereari ekin zion eta azkenik, Gipuzkoako gainontzeko mankomunitateek Aldundira jotzen dute beste proiektu bat martxan jartzeko" esan zuen Elizaldek.

Donostiako Udalak urtarrilaren 30ean hartu duen erabakiak, "Gipuzkoako zabor tratamendurako aurreikusiak zeuden zenbait egitasmotan eragina zuzendu izan duela" uste du Eusko Alkartasunak.

"Aldundia eta mankomunitateek Gipuzkoako partzuergoa sortzera doaz eta guk bertan partaide izateko eskaera egin dezagun proposatuko dugu datorren Txingudiko Administrazio Kontseiluan eta batzarrean, Txingudik eskaera formalki egin dezan. Hartara, Hondarribiko erraustegiaren proiektua bertan behera geratuko litzateke eta Gipuzkoan erraustegi bakarra legoke, Donostiakoa".

Ikerketa historikorako beka deialdia luzatu du bailarako EAJ-k

Beka Irungo Batzokiak antolatzen du

Irun eta Hondarribiako EAJk 5.000 euroko diru laguntza eskaintzen duen nazonalismoaren ikerketa historikorako III. Rafael Picavea y Leguía beka emateko deialdia zabaldu du.

Laguntza honetara aurkeztu ahal izango dira Irun eta Hondarribiako historia ezagutu edo bere iturri historikoak berreskuratzeko lagungarri gerta litezkeen jatorrizko eta argitaratu gabeko ikerketa proiektuak. Gaia eta garaia aukeratzeko askatasun osoa izango du egileak.

Eskaerak, Irungo batzokian (Nabartenea Etxea. Kale Nagusia, 11 1. solairua; 20304 Irun) aurkeztu behar dira, martxoaren 26ko 21.00ak baino lehen eta hauekin, honako dokumentazioa: proiektuaren txosten laburra (20 orritakoa gehienez), ikasketa titulazioa eta egilearen ikerkuntzarako merezimenduak eta eskatzailearen lan egoera ziurtatzen duen agiria.

Epaimahaia Irungo (3), Hondarribiko (2) eta Euskal Herriko (1) EAJko kideek eta Historia arloko lau adituk osatuko dute.

Haurrentzat aktibitate sorta zabala Mendelun

Prebentzio Komunitarioko bulegoaren bitartez, Hondarribiko Udalak Mendelu auzoan umeekin egiten den gizarteratze lana sakondu nahi du.

Jon Diez, Izaskun Rueda eta Izaro Garbizu teknikariekin batera emandako prentsaurrekoan, Aitor Kerejeta alkateordeak, "azken urteetan Mendelu hirigintza eta bizi baldintzen ikuspegitik asko hobetu da, baina auzoaren gizarte garapena funtsezkoa da aldi berean. Auzoak bizitza izan dezan, denekin bai, baina ume eta nerabeekin lan egitea bereziki beharrezkoa da".

Jon Diez teknikariaren hitzetan, "Mendeluren kokapenak ez ditu bertako umeak hiriko beste lekuetan egiten diren ekintza eta programetan parte hartzera animatzen. Horregatik jarri genuen martxan Ikas-Jolas programa, eskolako lanak egitea eta aisialdia batzen dituena. Arrakasta handia izan du". Programa honetan 30 ume inguruk hartzen dute parte, astearte eta ostegunetan, 16.30etik 19.30era.

Honekin batera, Udalak Mendelun ekintza berriak bultzatzeko asmoa du. Hauen artean dago datozen asteetan 6 eta 14 urte arteko umeekin egingo den antzerki tailerra. Bertan, komunikazio eta inprobisazio dinamikak, txotxongiloak, mimika edota zirku jokoak (diaboloa, globoflexia, malabarrak) landuko dira, besteak beste. Tailerra astelehen eta asteazkenetan egingo da, 16.00etatik 18.00etara sei eta hamar urte arteko umeentzat, eta 11 eta 14 urte artekoentzat 18.00etatik 20.00etara.

Mendeluko auzoari bizitza ematea da helbuiuetako bat

Gaztelekuak ikastaro eta jarduera ugari eskaintzen ditu

Eskaintza oparoa luzatzen da Gaztelekutik

Saindua Gaztelekuak martxoa eta ekaina bitarte antolatuko diren ekintza eta ikastaro sorta zabala eskaintzen du. Datorren astean hasiko dira eta ekainaren 28an amaituko dira Udaleko Gazteria departamentutik antolatzen diren ekitaldiak.

Ikastaroak 12 eta 29 urteko gazteentzat antolatzen dira eta gainontzeko ekintzak aldiz 12 eta 17 urtekoentzat. Ikastaroak honako hauek dira, ikastaroetan parte hartzeko aldiz 35 euro ordaindu behar dira:

Kitarra/baxua: martxoaren 6tik aurrera astearte edo asteazkenero, 17.45etik aurrera.

Perkusioa: perkusio afrikar, flamenko eta latinoa. Martxoaren 7tik aurrera asteazkenero, 19.45etatik 20.45etara.

Kapoeira: martxoaren 8tik aurrera ostegunero, 18.30etatik 20.00etara

Hortaz gain, Gaztelekutik hainbat irteera, tailer eta ekintza eskaintzen zaizkigu. Laburbildurik, honako hauek dira:

Eskiatzera irteera, martxoaren 17an. Hilaren 5etik 9ra izenematea Sainduan, Hondarribiko gazteen elkarlaguntzarekin antolaturik

Tailerrak: Manga tailerra, asteazkenero 18:00etan, eta Eskulan tailerra, ostiralero 18:00etan. Tailerrak doakoak dira

Azken ekitaldia, ekainaren 28an burutuko den jaialdi handi bat da. Arratsaldeko 17:30etan izango da, kitarra, baxu, perkusio, kapoeira emanaldiak egongo direlarik, baita musika, skate ikuskizunak…

Hortaz gain, Saindua Gaztelekuak ohiko zerbitzuak eskaintzen jarraitzen du, hau da, argazki laborategia, ikasgela, bilera-gela, espresio gela, internet-gela, topagunea (Play-Station 2,DVD, CDteka, ping-pong, mahai-jokuak, musika…).

Informazio gehiagorako, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara 943643198ra deitu behar da Saindua Gaztelekua.

Groenlandiako sukaldaritzaren hamabostaldia taberna eta jatetxeetan

Groenlandiako sukaldaritzarik onena Hondarribian egongo da martxoaren 14tik 25era, bertoko Ostalaritza Elkarteak antolatutako ekimen bati esker. Hondarribiko Udalaren eta La Bacaladeraren babesa jaso du, baita Bidasoa Bizirik-en eta Euskal Hotz enpresaren laguntza ere.

Europako iparraldetik etorritako zenbait sukaldarik Hondarribiko jatetxeetan bere lana erakutsiko dute. Alde batetik, Runne Collinek eta Gitte Nestel-ek 1999 urteaz geroztik 'Nipisia' jatetxea zuzentzen dute, Groenlandiako hiriburua den Nuuk hirian.

Asteazkena 21ean hitzaldi bat egongo da Jaizkibel Hotelean 19.30etan. Era berean, Natxo Gracia eta Jose Benitorekin batera Abarka jatetxean eta Rio Bidasoa hotelean degustazioko afariak eskainiko dituzte hilaren 22 eta 23an. Horrekin batera, martxoaren 22an Gran Sol jatetxean Gipuzkoako txapeldunorde den Bixente Muñozekin pintxo degustazio bat egingo dute.

Gastronomia ekitaldi hauekin batera, Manu Thalamas, Bixente Muñoz eta Julio Rebolleda sukaldariek Groenlandiako sukaldarien produktuak eskainiko dituzte euren Enbata, Gran Sol eta Txantxangorri tabernetan.

Aurkezpen eguneko irudi bat

Munduko makailaorik onena omen dugu bailaran

Duela gutxi 'The Washington Post" egunkari estatubatuarrak argitaratu zuen artikuluaren arabera, Irungo La Bacaladera enpresaren makailaoa da munduko onena. Otsailaren 28an argitaratu zuen erreportaje honetan, Ellen Ficklen-ek (gourmet elikagaietan eta delicatessen produktuetan adituak.).

Artikuluan, Ameriketako Estatu Batuetan aurkitu daitezkeen "espainiar" produktuen errepasoa egiten du. Produktu horietatik La Bacaladera enpresak esportatzen dituen makailao gatzatuaren azpizun eta solomoak azpimarratzen ditu pil-pilean prestatzeko, batez ere.

Jose Mari Salvador enpresako gerenteak esan digunez, "pozik gaude tamaina honetako egunkari batek ezagupen hau eman digulako. Kalitateko produktuak egitea da gure asmoa, eta badirudi lortzen ari garela"

La Bacaladera-ren produktuek sona handia lortu dute

Donostira autobusez joateko zerbitzua sendotu da

Autopistatik doan autobusaren irudi bat

Autopistaz Hondarribia eta Donostia batzen dituen autobus zerbitzua sendotu egingo da. Horretarako, gaur egun Zuloaga kaletik atera eta Donostiara heltzen den zerbitzua bertan behera geratuko da, eta zerbitzu berri bat abian jarriko da, hiritarrarentzat zerbitzu eta onura gehiago ekarriko dituena.

Eskaintza berria esperimentu bat izango da uztailaren 31 bitarte eta astelehenetik ostiralera hamahiru zerbitzu izango ditu, hamaika larunbatetan eta hamar igandetan. Iraupena 25-30 minutukoa izango da eta prezioa, 1'70 eurokoa.

Martxoaren 1etik hasita, Donostiara joaten diren guztiek geltokia San Kristobalen dute, Ama Guadalupekoa ikastetxearen aurrez-aurre. Zuzenean Donostiara joango dira Gipuzkoa plazan amaituko delarik ibilbidea. Itzulerako bidaian aireportuan geratzen da autobusa, gero San Kristobalera joango delarik, eta bertako biribilgunean buelta eman eta bide berari ekingo diolarik.

Ordutegiari dagokionez, astelehenetik ostiralera honako hau da. Lehena goizeko 7.15etan irtengo da eta orduro bat egongo da: 8.15, 9.15, 10.30, 11.30, 12.30, 13.40, 14.40, 15.40, 17.40, 18.40 eta 19.50. Itzulerakoa, Donostiatik lehena 7.45etan irtengo da eta azkena 20.20ean.

Larunbatean, Hondarribitik lehena 7.15etan irtengo da eta orduro bategongo da 10.30etan, izan ezik, bertan behera geratzen baita beste bat gehitzeko 20.20an. Gaueko 21.20an azkena irtengo da Donostiatik.

Igande eta jaiegunetan, Hondarribitik irteten lehena 10.30etakoa izango da. Orduro bat egongo da, 15.30etan izan ezik, beste bat egongo delarik gaueko 20.50ean. Hiriburutik, azkena 21.20an aterako da.

Bidasoa Bizirik-ek Hondurasekin lan egiten du garapen ekonomikoa bilatzen

Hilaren hasieran Bidasoa Bizirik-ek Honduras-tik etorritako delegazio bat jaso zuen, bertoko arlo desberdinetako 28 eragilez osatutakoa. Rio Bidasoa hotelean egin zitzaien harrera ofíziala, eta ondoren, mintegi bat ospatu zen sustapen ekonomikoa eta garapenerako bideak zeintzuk diren aztertu zirelarik.

Mintegian parte hartu zutenen artean, Aitor Kerejeta Hondarribiko Udaleko Lehen Alkateordea, Guillermo Echenique, Bidasoa Bizirik-en kontseilari delegatua, Izaskun Sanchez Nazioarteko Elkarkidetzarako Espainiar Agentziaren ordezkaria, eta Carlos Miranda, Comayagua (Honduras) herriko alkatea eta Ertamerikako herrialde honetako herrien elkarteko presidentea izan ziren, baita 28 pertsonez osatutako delegazioa ere.

Kerejetak esan zuenez "garapen lokalean garrantzia jartzea garrantzitsua da, merezi du, egunerokotasunean garrantzitsuena zer den ahaztu egiten zaigu eta, hau da, pertsona. Norbanakoaren garapena bultzatu egin behar da, langabeziarekin bukatu, langabetu bat dagoen tokian arazo bat baitago. Bidasoa Bizirik-etik Honduras-i laguntza eskaini nahi diogu beharrezkoa duten alor guztietan, denok bilatzen ditugun helburuetan jarraitzeko".

Hondurasko delegazioaren izenean, Carlos Mirandak "arrakasta izan duten esperientziak ezagutu nahi ditugu, hemengoa bezala, gero guk pertsonen arteko berdintasunean aplikatu ahal izateko. Guretzat bisita garrantzitsua da, baita historikoa ere, gero gure herrialdean egin beharreko lanean urratsak ematen hasteko"esan zuen.

Aurkezpena Rio Bidasoa hotelean burutu zen

Kirol Portuko gune komertzialak alokatzeko deialdia zabaldu da

Datorren apirilaren 2 arte irekita dago Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Kirol Portuko gune komertzialaren alokairua finkatuko duen lehiaketa. Aipatutako inguru honen azalera 4.000 metro karratukoa da, bi solairutan banatuta. Duela zenbait hilabete hasitako lanak amaitzeke daudelaren seinale argia da.

Euskadiko Kirol Portuak erakundeak kudeatuta, Kirol Portuan dauden itsasontzi eta zerbitzu desberdinei zerbitzua emateko sortuko da gune komertziala. Merkatal izaera eduki beharko dute eskatzaileek, hau da, ostalaritzakoak edota kultur-olgetarakoak. Printzipioz, kontratua 12 urteko iraupenekoa izango da ostalaritzako komertzioentzat eta 8koa gainontzekoentzat. Luzapenak emateko aukera zabaltzen da, ohikoak diren baldintzak eman beharko direlarik.

Prezioei dagokienez, ostalaritzako negozioentzat metro karratuko 180 euro kostako da eta 126 gainontzeko negozioentzat. Aurkezte epea amaituta, lehiaketa ireki bat egingo da eskatzaileen artean.

Interesa dutenek, informazio gehiago topatuko dute Euskadiko Kirol Portuak kaian bertan daukan eraikinean, edota www.ekpsa.com gunean. Proposamenak prestatzerakoan, EKP-k Gasteizen daukan egoitzean aurkeztu behar dira, apirilak 2ko eguerdiko ordubatak aurretik.

Kirol Portuaren gune komertzialaren irudi bat

Maria Iriartek 100 urte bete ditu

Maria Iriarte eta bere famiiliaren argazki bat

Pasatako martxoaren 6an, Maria Iriarte Etxebeste hondarribiarrak 100 urte bete zituen. Herritar bat adin horretara heltzen den bakoitzean Udalak egin ohi duen bezala, zenbait udal ordezkari, Aitor Kerejeta alkateordea eta Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia bere etxera joan ziren lore sorta bat ematera. Sasoiko dagoela ikusi ahal izan zuten. Zorionak eta urte askotarako, Maria!

Mikel Jauregi izango da Alardeko Burgumaisu berria

Mikel Jauregi Berrotaran izango da gutxienez datozen lau urteetan Hondarribiko Alardeko Burgumaisu berria. Martxoaren 16an Alardeko Mandoen egindako bilkuran, Jose Mari Guruchet-ek ohiko lau urteak bete ondoren, hautagai berria aukeratu behar zen eta Jauregi izan zen hautatua.

Datorren 2007ko irailaren 8an beraz azken zortzi urte hauetan Alarde Fundazioko idazkari izan den Mikel Jauregi izango da desfileko arduradun nagusia.

Kontu Txikiak: haur kantu eta jolasak jaio-berrientzat

Liburu eta CD bana emango zaie haurren gurasoei

Zuhaitz Egunean, martxoaren 24an, zuhaitzak landatzeko Guadalupe inguruan bilduko diren haur jaioberrien gurasoei, Kontu txikiak izeneko liburuxka eta CD-Roma banatuko zaizkie, beren haurtxoekin euskaraz kantatu eta jolasteko lagungarri izan ditzaten.

Euskara Zerbitzuak aurreko urteetan ere banatu du material hori, eta oso gurasoek pozik hartzen dute, erabilgarria gertatzen zaielako, bertan, euskal tradiziozko kantak, esaerak eta abarrez gainera, haurrek dituzten behar eta egoera bakoitzean erabiltzeko haur-hiztegi zabala ere jasotzen baita.

Horretaz gainera, interesaturik dauden gurasoentzat ikastaro laburrak eskaintzen dira material hori erabiltzen ikasteko. Liburuxkarekin batera ikastaro hauei buruzko informazioa ere emango zaie, baina argibide gehiago nahi duenak deitu dezake Euskara Zerbitzura: 943 111241 telefonora.

Martxoaren 24an ospatuko da zuhaitz eguna

Duela 12 urte hasi zen ekitaldi bati jarraiki, aurten martxoaren 24an ospatuko da Zuhaitz Eguna. Iaz jaiotako 182 herritarren omenez Oiamungo Gainaren inguruan, Guadalupe atzekaldean, zuhaitz bana landatuko da.

Gregorio Berrotaran Nekazaritza eta Ingurumeneko zinegotziaren hitzetan, "ekitaldi honen bidez, hondarribiar bakoitzaren jaiotza goresteaz gain, naturarekiko begirune eta arreta era orokorrean eta gure mendi eta bertako espezieekikoena ere bereziki irakatsi nahi dira, urtero basoak oihaneztatzeko ekarpen hau eginez".

Borja Jauregi alkateak Udalbatzaren izenean guraso bakoitzari zorion txartela bidali dio haurraren jaiotzagatik, eta Berrotaranek, zuhaitz landaketari ekin baino lehen, haur bakoitzari txartel bat emango dio bere izen eta jaiotze-datarekin.

Duela sei urtetik hona egiten den bezalaxe, Hondarribian jaio eta 7 urte betetzen dituzten guztiei, Berrotaran Zinegotziak berak egindako "makila" bana oparituko die, mendiko ibilaldietan lagun izan dezaten.

Gregorio Berrotaran Ingurugiro eta Nekazaritzako zinegotzia prentsaurrekoaren une batean

Olioa eta etxebizitzetako hondakin arriskutsuak jasotzeko zerbitzua areagotu da

Txingudiko Zerbitzuak-ek duela gutxi etxebizitzetako olioa eta hondakin arriskutsuak jasotzeko zerbitzua areagotu egin du. Hemendik aurrera, hileroko hirugarren larunbatetan Benta Zaharreko aparkalekuaren sarreran, ibilgailu egokitu batek goizeko 10:00etatik 12:00etara produktu hauek jasoko ditu.

Jasoketa Bentako aparkalekuan egingo da

Zerbitzu honen bidez etxebizitzetako ondorengo zaborrak jasoko ditu:
-Lanpara eta fluoreszenteak.
-Sukaldeko olioak
-Termmometroak.
-Automozioko zaborrak: olioak, bateriak, filtroak, balazta-likidoak...
-Gailu elektriko-elektronikoak: ordenagailuak, irrati-walkman, telebista mandoak, mugikorrak, kalkulagailuak, argazki kamerak...
-Tinta eta toner kartutxoak.
-CD-DVD disketteak.
-Argazkiak: fijadoreak, bainuak.
Txiskeroak.
-Kolak, margoak, disolbatzaile, bernizak.
-Pilak eta bateriak.
-Garbiketa produktuak.
-Radiografiak.
-Aerosol ontziak: intsektizidak...
-Pestizidak-pozoiak.
Aitor Kerejeta, Hondarribiko Udaleko alkateordeak esan duenez, "tankera honetako hondakinak jasotzeko eskari ugari izan ditugu, eta hori del aeta Txingudiko Mankomunitatearekin elkarrizketak mantendu ditugu zerbitzu hau abian jartzeko asmotan. Orain, hilero hirugarren larunbatetan 10:00etatik 12:00etara jasoko dira hondakin hauek. Aurrerantzean zerbitzua txiki geratzen dela ikusten badugu, areagotu egingo dugu".

Kalean Kantuz arrakastatsua San Pedro kalean

Martxoaren 11n ospatu zen KALEAN KANTUZ Hondarribian. Aurreko urteetan ere antolatu izan zen ekitaldi hau eta gero eta sendoago da partaidetza.

Arantxa Lasalderen kitarraren inguruan, ehunka lagun, heldu zein gazte, gustora bildu ziren San Pedro kalean, betiko euskal kantuak elkarrekin kantatzeko.

Saioak bi ordu inguru iraun zuen eta hurbiltzen ziren guztiek kantuen testuak dohainik banatutako orrialdeetan segitzeko aukera izan zuten. Eguzkiaren laguntzaz giro aparta sortu zen eta 400 kantutegi zabaldu ziren.

Udalaren Euskara Zerbitzuak antolatzen du ekitaldi herrikoi hau, eta lortutako arrakasta ikusi eta gero hilabetero antolatzeko asmoa dauka, hilaren bigarren igandean. Abesti tradizionalak erabiliz, herrian euskara zabaltzea eta sustatzea bilatzen du Udalak, musika eta alaitasunari lotuta.

Kalean Kantuz ekitaldi hilabetero ospatzen da

Martxoaren 31n igaroko da Korrika

Aurreko egunean Korrika Txikia ospatuko da

Iazko Korrika Txikiaren irudi bat

Korrika Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia Hondarribitik igaroko da martxoaren 31an. Aurreko egunean, Korrika Txikiaren unea izango da.

Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Aurten ere, 10 egunez eta gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du berriz ere Korrikak. 2.150 kilometro euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe. 600.000 lagunetik gora izan dira parte-hartzaileak aurreko Korrika edizioetan.

Aurtengo ekitaldia martxoaren 22an hasiko da Karrantzan (Bizkaia). Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, martxoaren 31n Urruñatik Hendaia eta Irunera heldu ondoren, Hondarribira etorriko da. Gaueko 20.51etan izango da AEK-k luzatutako ordutegiari jarraiki. Gero, Irunera joango da berriz eta handik Endarlaza, Etxalar eta gelditu gabe Iruñeara.

15. edizio honetan, euskal emakumeak izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera goraipatu nahi ditu Korrikak. Urtetako menderakuntza, jazartze eta zigorrei aurre egiteko eta euskal kultura eta euskara, belaunaldiz belaunaldi, gorde eta transmititzeko, euskal emakumeek izan duten indarra, adorea eta balioa omendu nahi ditu Korrika 15ek.

Eskifaia Abesbatzak XXV. Eliz Musikaldia antolatu du

Martxoan zehar Eskifaia Abesbatza Udal Kultura departamentuarekin batera antolatzen duen Eliz Musikaldiak mende laurden beteko du. Aurtengo ediziorako, Udalak 8.700 euroko laguntza ematen du.

Eliz Musikaldiaren 25. ekitaldi honen aurkezpena martxoaren 21ean egingo da, Zuloaga Etxea. Bertan, aurkezpenaren ondoren, gaiarekin lotutako erakusketari hasiera emango zaio. Martxoaren 23an, arratsaldeko 20.30etan, Javier Bustoren hitzaldi bat egongo da Carlos V. Paradorean, eta ondoren Xatz Eskifaiaren kontzertu bat entzun ahal izango da.

Martxoaren 24ean, larunbatean, Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Mari Parrokian Hondore Koru Taldearen kontzertua egongo da 20.30etan. Hurrengo egunean, Kup Koru taldearen emanaldia egongo da ordu berean.

Hurrengo asteburuan, martxoak 31 eta apirilak 1ean, Kanta Cantemus ostiralean eta Eskifaia Abesbatza, Irungo Musika Fundazioaren Orkestra eta J.M. Azkueren kontzertu batetaz gozatu ahal izango dute Parrokiara hurbiltzen diren guztiek. Arratsaldeko 20.30etan izango dira denak.

Eskifaia Abesbatzaren txanda apirilaren 1ean izango da

AMA GUADALUPEKOA JUDO KLUBA

Ainara Otegi

Gustuko lekuan aldaparik ez dagoen moduan, gustuko kirolak ere ez du nekerik sortzen. Hori pentsatuko dute Hondarribiko kirolari askok, baita Ama Guadalupekoa judo klubeko gazte askok ere, horien artean Ainara Otegik. Txoko honetan kirol honen zale asko dagoela aitortu digu Ainarak, berak ordezkatzen duen klubean makina bat judoka Gipuzkoa, Euskadi edo Espainia mailako txapelketan arerioa menderatzeko gai baita. Hona ondorengo lerrootan neska gazte honek judoaren inguruan kontatutakoak.

Noiz hartu zenuen presidente kargua? Zein da zure zeregina?
Duela hilabete pasatxo hartu nuen klubaren ardura, lehendik Dani Palavecinok zuena. Momentuz urtebetez izango naiz kargu honetan. Nire zeregina zein izango den? Bada, urtean behin edo bitan antolatzen ditugun bileretan parte hartzea, urteroko lehiaketekin jarraitzea, klubeko gainerako kontuak eramatea...

Zuen kirol kluba aspaldikoa al da?
Judo kluba sortu zela 8-9 urte izango dira oker ez banago.

Judoka asko al zarete Ama Guadalupekoan? Bertan sartzeko baldintza zorrotzak al dituzue?
Izen emanda eta judoan aritzen garenak 100 lagun gara (txikietatik hasi eta handietaraino). Baldintzei buruz ezin dizut gauza ziurrik esan, klubaren martxa oraintxe hartzen hasi bainaiz. Hala ere, badakit hasierako kuota behin bakarrik jarri eta gero bazkide izan zaitezkeela denboraldi batez.

Zein lehiaketatan hartzen duzue parte?
Txikien mailan ez dago konpetizio ofizialik; antolatzen diren lehiak beraien artean edo beste klubetako judoken artean izaten dira. Handixeagoen artean, hots, 8-10 urte arteko gaztetxoei dagokienean, eskola kirola da ekintza nagusia. Talde bakoitzak bere ingurukoekin ligaxka modukoa egiten du. Asteburuetan eta hiruzpalau egunetan konpetizioa antolatzen da; hartara, Gipuzkoako beste herrietako neska-mutilekin elkartu eta txapelketa izaten da (eta hortik ateratzen dira Gipuzkoako 1go, 2. eta 3. judoka onenak). Infantilen mailan, hau da, 12-13 urte artean, lehiaketa serioagoak jokatzen dira; maila honetan Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako konpetizioak egiten dira. Italiara, Madrila, Avilesera… joan izan gara. Kadete eta junior mailetan ere infantilen mailan jokatzen diren lehiaketa berberetan parte hartzen dute gazteek. Kadeteak aipatu ditudanez, aurten Espainiako txapelketan 3. postua eskuratu dugula esan beharra dut.

Zu ere, Ainara, judoka zaitugu...
Bai, ni senior mailan nago, baina lana dela eta ez naiz kanpora gehiegi ateratzen; Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapelketetan baino ez naiz izaten.

Txapelketetan parte hartzea esperientzi bikaina izango da, baina hara eta hona mugitzeko, kontzentrazioetara joateko eta beste hainbat bidaia egiteko nolabait moldatu beharko duzue...


Ainara Elizondo

Bai, lehiaketetan parte hartzeko, edo haurrekin alde batera eta bestera mugitu ahal izateko ezinbestekoa egiten da gurasoen laguntza. Adibidez, Avilesera urtean behin joaten gara eta bidaia egiteko guraso batzuekin moldatzen gara. Orain arte horrela konpondu izan gara eta ez dugu arazorik izan.


Haur eta gazteak aritzen dira Ama Gudalupekoa Judo Klubean

Laguntzarik jasotzen al duzue kluba aurrera ateratzeko? Jantziak, entrenatzeko lokala... nola lortu duzue?
Orain arte laguntzak jaso izan ditugu, bai. Jantzia bakoitzak berea erosi ohi du eta entrenamenduak Ama Guadalupekoa ikastetxean egiten ditugu astean bitan. Orain dela urte batzuk lokalaren gainean Udalarekin hitz egin genuen, baina oraingoz ez digute ezer esan eta gaia geldi dago.

Ze maila dago zuen klubean?
Oso ona benetan, sekulako palmaresa dugu! Jokin Sagarzazu Espainiako txapeldun izan da urte pare batean, Marcos Garcia 5. postuan geratu zen orain dela urte batzuk Europa mailan, aurten 3. postua lortu dugu kadete mailan Espainiako txapelketan eta Gipuzkoako txapelaren jabe ere bagara elkarte bezala.

Sakrifizio handiko kirola al judoa?
Gauza guztiekin gertatzen den bezala, urrutira iritsi nahi baduzu noski gogorra dela. Esaterako, borroka 60 kilotan egiten baduzu eta bizpahiru kilo hartzen badituzu, bada, zaindu beharra daukazu normala den bezala.

Zeintzuk dira judoka batek behar dituen ezaugarriak?
Kontzentrazioa eta asko entrenatzea. Guk, adibidez, judoa astean bitan egiten dugu, baina gainerako egunetan ez gara egonean egoten. Egoera fisikoa eta fondoa lantzen dugu judoa egiten ez dugun egunetan.

“Euskaldunon antzinako sustraiak” (III)


Martin Iturbe

Gaur berriro, Izadi zabalera begira jarriko gara, “ZERTAN ETA NOLA SOMA IZAN DUEN EUSKALDUNAK SAKRATUAREN PRESENTZIA” aztertzeko.

b) MENDIAK

Gizonaren zibilizakundeak aurrerapen haundiena lautadatan izan badu ere, lan hau bideratu duten gizonak mendietatik datoz; eta harrigarria gertatzen da zer nolako erlijio-aztarna ugariak uzti dizkigun gizon honek mendien inguruan: ermitak, agerkundeak, mitoak...Izan ere, lehen euskaldun harentzat badu mendiak halako misteriozko giro bat, lur honetatik aterarik, zeruruntz jasotze bat. Mendietan bizi dira izpiritu indartsuak eta han agertzen dute beren indarra; handik dator gizonaren sabalbidea, han aurkitzen du ziurtasuna; gizona igaro egiten den bezala, mendiak iraun egiten du. Adibide bezala, bakoitzak bere ingurukoez osa dezakeena, hona zenbait mendi, beren luze zabalean mitoz eta ispirituz hornituak:

=AIZKORRI, Mari-ren bizilekua.
=ANBOTO, damaren mitoaz gainera prehistoriako gizonaren dokumentu ugari utzi dizkiguna eta oraindik ere ermita eta santutegi asko eskaintzen duena, mitologia sakratu honen lekuko bezala.
=GAZTELU, Zaldibian, hau ere trikuharriz eta mitoz jositako inguru batetan.
=HERAUSU, Benafarroako Doneztiri eta Armendaritze bitartean.

d) HARRIAK

Harriak beti izan du lehen gizonarentzat eta baita euskaldunarentzat ere oso esanahi sakona, duen gogortasunagatik eta iraupenagatik; gizonaren aldakortasunaren aurrean, harriak bere izaeran berdin dirau garairik garai. Euskal lurraren izakera bera, haitz ugariz, gogorrez, zorrotzez, trinkoez josia, goren mailako hierofania zela esan dezakegu euskal gizaki harentzat. (Gogoan har aurreko puntuan mendiei buruz esandakoa).

Ona hemen harriaren kultuaren garrantzia Euskal Herriko
=Harrespiletan: Ezkain(Ezkurra), Unamene (Arano), Egiar, Errenga, (Oihartzun)...
=TRIKUHARRIETAN: Sagastieta (Hernani), Aizkomendi (Egilaz) , Igaratza (Aralar)...
=IRUINARRIETAN: Iparla (Bidarrai), Latargi (Ezkurra), Mehatse (Itsasu).

Izan ere, harriok hildakoak zaintzeko eta hildakoen arimentzat bizilekua emateko asmoz jarriak izan ziren.
Hau nahikoa ez balitz, badira baita “Jinko-harriak” deituak ere. Jaso eta sukaldeko leihoetan jarri behar direnak, badira bide ondoan jartzen direnak ere: zertarako ote? Ziur jakin ahal izan duguna zera da: harriak lehen euskaldun hari jainkotasunaren presentziaz hitzegiten ziola.

(Jarraituko du)

Mendebaldeko saihesbidea ireki da

Hondarribiko saihesbidearen bigarren fasearen inaugurazioa martxoaren 6an burutu zen. Bertan izan ziren besteak beste Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahaldun Nagusia, Borja Jauregi Hondarribiko Alkatea, Javier Zuriarrain Bide azpiegituretarako Diputatua eta Josu Agirrezabalaga Errepideetako Zuzendari Nagusia.

Jauregi alkateak esan zuenez, "oso azpiegitura garrantzitsu baten aurrean gaude, gure hiriko sarrera eta irteera asko erreztuko duen zerbait da eta, bai hemen bizi garenontzat baita gure hirira etortzen diren guztientzat ere, asko dira eta".

Ireki berria den bigarren zati honek kilometro bat baino gehixeago dauka, eta elementu nagusi bezala hartzen ditu, alde batetik, hiru biribilgune berriak egitea (Muliate, Montaña eta Torrea) eta, bestaldetik, Labreder kalea hiri saihesbide gisa egokitzea. Lehen saihesbidea 2003ko abuztuan ireki zen. Obraren kostu osoa 4,4 milioi eurokoa izan da.

Egindako obrak, laburbilduz, honako hauek dira:

- 850 metroko errepide berri zati bat, Santa Engraziko oraingo biribilgunean hasi eta Montaña baserriaren ondoan Jaizkibelgo errepidearekin (GI-3440) lotzen den arte.

- Labreder kalea hiri-saihesbide gisa egokitzea eta

- Hiru biribilgune berri:

* Muliateko biribilgunea: Txiplaoko poligonorako bideadarra eta Muliaten egingo den etxegunerako sarrera-irteera bideadarra ditu.

* Montañako biribilgunea: Jaizkibelgo errepideko (GI-3440) bidegurutzean, eta saihesbidearen jarraipena Labreder kaletik.

* Torreko biribilgunea: saihesbidearen oraingo obren amaieran, lotzen da Baserritar etorbidearekin, Mourlane Michelena kalearekin eta hilerrirako sarbidearekin.

Lehen 400 metrotan, Santa Engraziko eta Muliateko biribilguneen artean, saihesbidea bidegorri baten paraleloan doa, bien artean 0,60 metroko tartea utzita, eta tarte horretan zuhaixka moduko landareak jarri dira, hesi modura.

Obrak osatzeko, honako beste lan hauek egingo dira: hiru pasabide egingo dira Montaña eta Txiplau erreken gainean, Muliateko biribilgunean, eta Txiplau poligonorako sarbide berrian; Montaña erreka gainetik zeharkatuz drainadura obra egingo da Montaña biribilgunetik 150 metrora; errepidearen azpiko pasabidea, Tudela baserriaren ondoan, soilik oinezkoentzakoa, saihesbideak etendako landa-bide bati jarraipena emateko; eta, azkenik, Montaña inguruan beste bide bat, alde hartako baserrietarako sarbidea birjartzeko.

Mendebaldeko saihesbidearen irekiera ofizialean Joxe Juan Gonzalez de Txabarri ahaldun nagusia izan zen, Foru Aldundiko errepideetako ordezkaria eta Borja Jauregi alkatearekin batera.

Erdi Aroko Hirien Sarea

Erdi Aroko HIrien Sareko kide izango diren hamar alkateak Kale Nagusian behera. Behekaldean, Sare berriaren presidente eta bi presidente-ordeak, Lizarrako Alkatesa ezkerrean eta Almazan-goa eskuinaldean,

Ostiralean osatu zen Hondarribiko Carlos V paradorean Erdi Aroko Hirien Sarearen Elkartea. Bertan izan ziren parte hartzen duten hamar herrietako ordezkariak, alkate eta turismo zinegotziak nagusiki. Goizeko 10.00etan hasi zen osaketarako asanblada, Borja Jauregiren zuzendaritzapean, bera baita elkarteko lehen presidentea. Asanbladan zenbait gai jorratu ziren, Zuzendaritza Batzordeko kideak zeintzu izango diren, presidente, presidenteordeak, idazkari, diruzain eta bokalak izendatu zirelarik. Hortaz gain, sarera etorri den azken herria izendatu zen, Segoviako Pedraza hain zuzen ere.

Eguerdiko 11.45etan Alkate eta ordezkari politikoak Paradoretik irten ziren txistularien atzetik; ondoren aurresku bat dantzatu zitzaien autoritate guztiei. Eguerdiko 12:00etan hasi zen Udaletxeko Areto Nagusian sortutako elkartearen aurkezpen publikoa.

Jauregik ongietorria luzatu zien ordezkari guztiei. "Almazán (Soria), Consuegra (Toledo), Coria (Cáceres), Lizarra (Nafarroa), Biasteri (Áraba), Olivenza (Badajoz), Sigüenza (Guadalajara), Sos del Rey Católico (Zaragoza) eta Pedraza (Segovia) etorri den azkena. Hemen dira gure artean ere Oloron St. Marie eta Donibane Garazi, gonbidatu bezala".

Alkateak sare berriak egingo dituen zenbait jarduera izendatu zituen. "Gastronomia ekitaldi bat egogo da, Erdi Aroko pintxoez osatua. Herri bakoitzean lehiaketa bat egongo da eta garaileak Consuegran elkartuko dira urriaren 25 eta 26an finalean parte hartzeko. Hortaz gain, web gunea osatu eta berritu dugu, denon arteako kultur agenda bat osatu eta herri bakoitzak dauzkan baliabide turistikoak biltzen dituen liburuxka bat osatu ere".

Erdi Aroko Hirien Sareak lau presidenteorde ditu: hurrenez-hurren Lizarrako alkatesa, Almazan-goa, Olivenzako alkatea eta Consuegrakoa. Guztiak pozik agertu ziren sortutako elkarte berri honekin eta eskerrik beroenak eman zizkieten Borja Jauregi alkateari Hondarribiak egindako harrera ezinhobea eskertuz.

ofizialki osatu da Hondarribian

Eskubiko irudian, Alkateak Bruno Iriarte eta Koldo Emery mazeroen atzetik. Behekaldian aldiz, hamar herrietako ordezkarien irudi bat Udaletxeko Areto Nagusiaren ateaaren aurrean.

Behekaldean, sortu berri den Erdi Aroko Hiri eta Herrien sarearen mapa. Azken orduan ekimenera gehitu den Pedraza (Segovia) ez dago oraindik ibilbidean izendatuta.

Xabier Gezala, Hondarribiko kultur zinegotzia pozik da sarea errealitate bilakatu izanarekin. Baina elkarte zabal honen benetako ibilbidea orain hasten delakoan dago: "Orain artekoa nolabait parafernalia guztia izan da, eta orain hasi beharra dago sareak eman dezakeena lantzen eta aktibitate amankomunak sortzen", azaldu du EAJ alderdiko zinegotziak.

Gezalak esan zuenez, "dagoeneko informazio turistikoa zabaltzeko triptiko amankomunak, agenda kultural bateratua eta hiri guztien arteko pintxo txapelketa bat antolatua dago".

Zentzu honetan, abiapuntuko sarearen onurak interesa piztu eta zabaltzen joan da. Aitor Kerejeta, Hondarribiako alkateordearen esanetan, "sarea nazioartera zabaldu da, eta dagoeneko Campomayor (Portugal), Oloron (Frantzia), Donibane Garazi (Baxe Nafarroa) edota Pedraza (Segovia) herri harresituak ere barneratu dira azken unean".

Emakumeek egindako artelan eta eskulanak erakutsi dira azken aste hauetan, Zuloaga Etxean eta Pascua Arte Galerian. Urtean zehar elkartean egindako lanen ondorioa dira.

Emeki Elkarteak Emakumearen Astea ospatu du

Emeki Elkarteak Emakumearen Astea ospatu berri du. Aurten, omendua izan den emakumea Itxaropena tabernako Martxeli Irazoki izan da, martxoaren 11n ospatu zen ekitaldi hunkigarri batean omendua izan zelarik.

Montse Garmendiak, Emeki elkartearen presidenteak azaldu zuenez, "urtero, bai bere etxean edo baita jende aurrean lan eta esfortzu haundia egin duen emakume bat aukeratzen dugu. Kasu honetan, 85 urte dituen Martxeli Irazokik, 60 urte daramatza Itxaropenan. Tabernа ireki zuen bere garaian eta gaur egun oraindik sukaldean aritzen da".

Hortaz gain, hilaren 8an, Emakume Langilearen Egunean, herri bazkaria ospatu zen eta egun berean, Emekik egiten dituen ikastaroetako partaideen lanen erakusketa ireki zen Pascua arte galerian. Gainera, Zuloaga Etxean, emakume artisten erakusketa egin da hilaren 8tik 18ra.

Emeki Elkarteak urtero emakume bat omentzen du, bizitza osoan egindako lana eta eskaintzen duen emakumearen irudia eskertzeko asmoz. Aurten, Martxeli Irazoki, Itxaropena tabernako sukaldaria, izan da omendua.

Ander Alvarez Euskadiko Txapeldun Optimist diziplinan

Ander Alvarez, Hondarribia Itsaskari Baitako kirolaria, Euskadiko Txapeldun suertatu zen Optimist kategorian, martxoaren 4an Bidasoako uretan antolatu zen txapelketan. Hasiera batean, txapelketa bi egunetan ospatzekoa zen, baina haizea lehen egunean agertu ez zenez, iganderako utzi zen.

Hondarribiko Itsaskari Baitak antolatutako txapelketa honetan partehartzea oso handia izan zen. Antolatzaileek esan digutenez, oso maila ona erakutsi zuten kirolariek. Hauxe izan zen garaileen zerrenda

Euskal Bela Ligako hurrengo lasterketak Arabako Ullibarri-Ganboan ospatuko dira apirilean eta Kontxako Badian maiatzean.

OPTIMIST DIZIPLINA

ALEBIN KATEGORIA
3 MORGANE FOUILLET (YCBASQUE)
2 JULEN ALZA (HONDARRIBIA)
1 NICOLA JOVE-DUVAL (RCMA)

INFANTIL KATEGORIA
3 SANTI PAGOLA (RCNSS)
2 JON OLAETXEA (HONDARRIBIA)
1 ANDER ALVAREZ (HONDARRIBIA)

KADETE KATEGORIA
3 ELISABETH THOMAS (GETARIKO KOSTABELA)
2 IMANOL RIBERA (HONDARRIBIA)
1 MIREN JUARISTI (GETARIKO KOSTABELA)

EUSKADIKO TXAPELKETA
1 ANDER ALVAREZ (HONDARRIBIA)

420 DIZIPLINA
3 INES VIAR ETA MARTA VIAR (RCMA)
2 HELENA NOGUERA ETA MONICA ARISTEGUI (RCMA)
1 MIKEL MUNILLA ETA PABLO DIAZ (VILLAFRANCA DEL RCNSS)

EUSKADIKO TXAPELKETA
1 MIKEL MUNILLA ETA PABLO DIAS (VILLAFRANCA DEL RCNSS)

Parte hartze handia izan zen Hondarribiko Itsaskari Baitak antolatutako frogan

Sardara Hondarribiko Automobilismo Elkarteak denboraldia hasi du

Sardara Hondarribiko Automobilismo Elkartea hasi da motorrak berotzen. Iaz Lesakako Rallysprint frogan parte hartu zuten, eta aurten, zenbait arazo gainditu ondoren berriz ere lehian aritzeko prest daude.

Ion Muñoz gidari lanetan eta Jon Amiama laguntzaile bezala, martxoaren 11n Gabiriako Rally-an parte hartu zuten. 36. tokian sailkatu ziren, bigarren txandan bere aurretik zihoan autoak istripu bat izan ondoren lau minutuko penalizazioa jaso baitzuten hura laguntzeagatik.

Opel Kadett GSI 16v batekin aritzen dira hondarribiarrak, eta hurrengo lasterketa Etxalarreko Palomeras-erako igoeran izango da apirilaren lehenean. Txapelketan dauden lasterketa guztietan parte hartzeko asmoa dute gazteek, eta horretarako ezinbestekoa da sponsor edo laguntzaileen eskua. Honako hauek dira: Uhinlan, Construcciones Fernandez, Indima, MZ Motorsport, Inmobiliaria Muñozarena eta Talleres Electro.

Hondarribiarrek trebezia handia erakutsi zuten

Satarka “A” maila
2.saria

ISILTASUNARI DURUNDIO


Irati Goikoetxea

ISILTASUNARI

(Hor zaudelako, beti mutu)

Esku ahurretan biztzaren arrastoetan zintzilik.
begi idortuetan malko izoztuen salatari,
honar ale bat eskumuturrean behera, denboraren maitale

Isiltasun ezpain gorri
ez zaitez etorri.

Izututako lainoen aurpegi zurbila,
aldapa zimurtua poema makur zigortueetan,
bi lasto-mutur zubi urtsu itoen, izerdi egarri.

Isiltasun begi urdin.
banoa zurekin

LOA-LOA TTUNTTULUN BERDE

Ipuinaren azken irribarrea
laburra da izarapean
eta betileetan txirikordatu dizkizu amets bat, eta bi ametx.
Zaldi bat, eta bi hego;
adarra kopetan,
kantu hegan doa azukrezko mendi zurietan goxo,
eta maitagarriak bizi dira basoan.
Txokolatezkoak dira iratxoen etxeak.

Amaren eskua ttunttulunka ari da
ohe ertzean izarak marrazten
eta horregatik, gaua ez da oraindik hain ilun,
horregatik itsatsi zaizkizu ipurtargiak bihotzean,
eta orain ez duzu beldurrik.

Izara artean erreka bat dator
eta arrainak txipli.txapla jolasean urari
kantuan ari dira udaberriari.
Gaur ere ez da otsorik etorriko,
ametsak eraman duelako haurraren ipuina.
Eta ilun dago,
ilun dago argiaren azken aierua.
Ama
isilik dago haurrari begira;
eskua eman dion harraren loari. Ttunttulunka. Isilik.

OROIT EZAZU BILUZDURETAN MINTZO ZIREN GURE BEGIEN DIZDIRA

Gauetan gogoratzen da ilargiarekin
eta lainoek hozka egiten diote gehienetan
ilargi beteko gauetan zulo bat da
ekaitzak irentsi diona;
malkoak ihesi doaz
eta trumoi arteko itsasoak igerian ukitu dizkio ertzak
mutu,
urtu gabeko errekastoan behera.
Badaki bihotza ito zaiola.

Orain ihesi joaten zaizkio loreak,
eguzkiak erre zaizkie egunsentiei,
hautsa pilatu begietan. Ia oharkabean.

Orain lotsatiak dira ilunabarrak,
eta abuztua den arren, euria egiten du goizetan;

besdamotz gelditu zaizkie besarkadak,

Otsoak ulu egin dute,
baina, ilaregia ez da maitasuna marrazten ausartu.

Ane
isilik dago. Beññati begira;
eztanda bat entzun da eta ezpainak zulatu zaizkio. Isilik.

HANDITZEN ZARENEAN IKUSIKO DUZU ISILIK EGOTEAK ZENBAT BALIO DUN

Iltzez josi dituzte olatuen soinekoak,
eta mezu itsua beltzez jantzitako kresala.
Badoa itsas labarra, badoa
portuko sare ahaztuak bizkarrean hartuta.
Gose da hegoaldera begira eskatu den eskua.
Moztu egin diote eta eguzkia erori egin da Afrikatik gora.

Itzal bat korrika, harrika
eta betaurreko beltzak lurrean. Mozlortuta.
Belaun buruetan bi mamu kateatu dira,
eta akohola hustu dizu belarretik madarikatuak!

Zulo ba, eta zuloan bi suge
eta sugean miztoa, eta miztoan odola.
Odolean sua, eta suan izua,
eta izuan tximistak, eta tximistetan hitzak.
Hitzetan bi zulo. Trumoia.

Mundua
isilik dago aintzirari begira;
ispilu hautsia da aurpegian ikkusi duena. Isilik.

EZKILAK ZEUDEN ISILIK NIK EZ BAITAKIT ZERGATIK

Burdinazkoa du ametsak atea,
bakardade gorrian errea,
eta hilarriaren aurrean
begiak errekara bota ditu korrontea itsasoan sutu den arte.

Orduan busti da eguzkia,
tximistak itzal bihurtu dira, trumoiak mutu.
Eta esku arteko loreari heriotza margotu dio;
beltzez jantzitako arrosak ederrak dira oraindik,
tamalez,
ahaztu zaio bakardadea,
burdinazko ate ametsik gabea.

Jainkoaz egindie galde
hilerrirainoko bidean zorabiatu ez diren txoriei;
zirina utzi dute bihurgune bakoitzeko
zirina utzi diote gurutze erdoilduari,
Txoriei ere beldurra ematen die heriotzak,
eta ez dute abestuko
agian, negura arte.

Hiltzen ikasten dutenean joana izango da negua.

Aitona
isilik dago amonari begira;
itxaroteko esan dio. Pixka bat. Itxaroteko. Berarekin doala. Isilik.

Txistu egin zioten
eta isiltasunak, zutik, burua makurtu zuen.

Beharbada iluntasunari lapurtu nion
eta iluntasuna hizketan hasi zaidanean
ohartu naiz.

Beharbada
ohartu naiz
hizketan audena
ez zaudela beti,
mutu hor.

Eta udazkeneko orbel lanbrotsuen haizeari bi laxo egin dizkiot oinpean.
Oihu egin dut;
oihu egin dut isiltasuna zartatzeko beldurrez.

Inkisizioa Hondarribian XVII. mendean

Koldo Ortega

Hondarribiko gazte bat, Jokin Goiburu, bere eguneroko lana bete ondoren, gaueko batxilergoan ikasle dugu Pio Baroja Irungo Institutuan. Beti, jakin nahian, duela gutxi honakoa galdetu zidan: Hondarribian Inkisizioa aritu al zen?

Hori dela eta, Udal Artxibategira jo dugu eta bertan zenbait agiri aurkitu ditugu lantxo hau egin ahal izateko.

Inkisizioaren kokapen historikoa

Heretikoak aurkitu eta zigortzeko Eliza Katolikoak sortutako eliz-auzitegi iraunkorrari esaten zaio inkisizioa. Inozentzio III.ak sortu zuen 1215ean, heresia zapaldu eta heretikoak zigortzea helburua zuen prozedura kanonikoa. Erakundea, ordea, Gregorio IX.ak sortu zuen 1231an, kataro edo albitarren aurka borrokatzeko. Domingotarrek hartu zuten auzitegiaren ardura. 1252an, Inozentzio IV.ak Inkisizioak prozesu eta tortura erabiltzea onartu zuen. Oso auzitegi ankerra izan zen. Erruduntzat jotakoak gogor zigortzen zituzten, zigorrik handiena sutan erreta hiltzea zen. Inkisizioa Siziliara, Napolira, Milanera, Herbereetara eta, geroago, Ameriketako kolonietara ere zabaldu zen. Heretikoa edonon aurkitu, epaitu eta zigortzeko sistema oso bat zen Inkisizioa. Kataro eta albitarren aurka eraginkorra izan zen, baina, protestantismoaren aurka, Espainia eta Italian izan ezik, ezin izan zuen ezer egin Europan.

Inkisizio Santuaren armarria

Euskal Herria lehenengo Kalagorriko tribunalaren menpe zegoen, eta gero, Logroñokoaren pean. Inkisizio modernoa tresna eraginkorra izan zen egoera politikoa kontrolpean edukitzeko, baita ere, sortu nahi zen estatu-motaren berdinkeri ideologikoaren disidentzia zigortzeko. Inkisizioaren helburua heretikoak zigortzea zen, baina "heretiko" hitzaren azpian gauza asko sar zitezkeen eta, Gaztela-Aragoiko eta Frantziako monarkiak muga Piriniotan jarri nahian ari ziren. Monarkia haren kontra zegoen guztia susmopean jarri zuten: mugak itxi zituzten, odol garbitasuna aldarrikatu zuten, hizkuntza bakarra, eliza bakarra eta jainko bakarra ezarri, eta hortik kanpoko zegoena desagerrarazi.

Espainiako Felipe II.aren garaian, 1575ean, Hego Euskal Herrian egin zen sorgin jazarpena ikaragarria izan zen. Iparraldean, berriz, Enrike IV.ak bidali zuen Lapurdira De Lancre magistratu frantziarra, 1609an. Sorginen aurka egin ziren prozesu basatienak Zeberion (Bizkaia), Zugarramurdin (Nafarroa Garaia) eta Lapurdin (Iparraldea) egin ziren. XVII. mendearen hasieran Inkisizioak beste egiteko ugari bete zuen, ia beti kristau-ortodoxiaren defentsan edo aitzakian: muga eta portuetako jende- eta liburu-trafikoaren kontrola adibidez. 1834. urtean desagertu zen behin betiko Inkisizioa eta Pio X.ak 1908an "Ofizio Santua" izeneko kongregazioa sortu zuen haren ordez. Joan Paulo II.ak barkamena eskatu zuen 2004ko ekainaren 15ean, Roger Etxegarai

kardinal lapurtarrari bidalitako gutun baten bidez: Inkisizioak egindako gehiegikeriak fedearen eta jainkoaren aurkakoak izan zirela esanez.

Eta Hondarribian zer?

1603ko Akta Agiria irakurrita, datu interesgarriak topatu ditugu. Orduko Hondarribiko alkateak Domingo de Aramburu eta Martin Saenz de Aldacoa ziren. Duela 404 urteko dokumentu hau irakurtzen jarraituta, zera irakur dezakegu: "Nos, los inquisidores contra la heretica, praciedad y apostasia en todo el Reyno de Nabarra y Obispado de Calahorra y la calzada, señorio de Vizcaya y provincia de Guipúzcoa, y en todas las tierras y jurisdicción del Arzobispado de Burgos por los montes de Oca (…) y bien del Santo Oficio de la Inquisición que en esta villa de Fuenterravia aya algunos familiares para que hagan y cumplan lo atendido, consideramos que Jacobe de Azaldegui sois persona de buena y limpia parte, pacifico, quieto, honesto, apartado de ruidos y escandalos".
Testuan aurrerago ikusten denez, pertsona honek defentsa eta erasorako armak eramateko eskubidea dauka, eta 200 urrezko dukado ordainduko zaizkio. Aurrerago, Martin Saenz de Zuloaga zenari eskubide berberak ematen zaizkio.

Guzti honek, Inkisizioa Hondarribian ere existitu zela argi uzten digu. Gai interesgarria benetan noizbait sakondu eta behar moduko lan bat egin ahal izateko.

Hondarribian Inkisizio Santuari buruz dauden erreferentziak ugariak dira. Kasu honetan, 1603. urteko dokumentuek diotena da aztertu duguna, hala ere, Udal Artxibategian informazio anitz dago. Ikerketa sakon bat egiteko moduko dokumentazioa.

Endaika, arraunaren inguruan lanean

Bailarako hiru elkarteen elkarlan baten alde daude hendaiarrak

Endaikako beteranoak Armintzan bandera irabazi zuten eguneko argazkia

Duela aste gutxi Bidasoako Jaitsiera ospatu zen Bidasoako uretan. Ohiko partehartzea izan zen kategoria guztietan, eta sailkapenak begiratzen hasita, atentzioa deitu zigun beteranoen kategorian Endaika izan zela garailea. Hori aintzat hartuta, beraiekin kontaktuan jarri eta elkarte horren gaur egungo egoerari buruz zerbait jakin nahi izan genuen.

Andoni Etxarrirekin egin genuen hitzordua, aski ezaguna Hondarribian eta inguruetan. "Suhigaraixipi izeneko traineruarekin aritzen gara, Hendaiako korsario bat zena. 22 gizon aritzen gara, gutxi gora behera 47 urteko media dugu. Beste batzuen artean, Aitor Sorondo eta Iñigo Egiguren gurekin dabiltza. Trainerua Olaziregik egindakoa da, Hondarribia Arraun Elkarteak guri emandakoa. Hortaz gain, 1967. urtean Ama Guadalupekoak Kontxan irabazi zuen trainerua ere gure Elkartean gordetzen dugu" dio Andonik.

Tosta mugikorreko kadeteen irudi bat

Endaikaren lan nagusia arraun eskolan zentratzen da. "Banku higikorrean aritzen gara" jarraitzen du Andonik. "50 mutil eta neska, infantil, kadete eta jubenil kategorietan. Emaitza nahiko onak lortzen argi gara, eta bereziki Jessica Berra aipatu behar dugu, Frantziako txapeldun izan baita Skiff-ean. Agian Joku Olinpikoetara heltzeko aukera izango du".

Etxarrik Hondarribia eta Irungo arraun elkarteekin elkarlanean aritzeko gogoa dauka. "Nik uste garai onean gaudela hiru arraun elkarteak elkartu, mahai baten inguruan eseri, eta bakoitzak bere ezaugarriak azaldu. Aisialdiko aktibitateak egin daitezke, eta biharko egunean norbait interesgarria ateratzen bada, dudarik gabe Hondarribia Arraun Elkartera joango litzateke. Guk ezin dugu traineru bat atera, eta gure trainerua Hondarribia dela argi daukagu. Ez da ahaztu behar duela 10 urte Ama Guadalupekoaren bigarren trainerua guk eraman genuela ere, oso esperientzia polita izan zen guretzat, han zeuden beste askoren artean Joseba Amunarriz, Gonzalo Carrion…".

Ez da idea txarra, gainera hitz egitea beti da onuragarria.

Nekazaritza ekologikoaren alde

Nekazaritza ekologikoak, ohiko nekazaritzak ez bezala, ez du erabiltzen ez ongarri kimikorik, ez pestizidarik, ez fitohormonarik, ez gainerako sintesi-produktu kimikorik. Honela, ziklo biologiko naturalari eusten dio eta ez dio ingurugiroari kalterik egiten.Nekazaritza ekologikoak hiru oinarri dauzka: ongarri natural, bere egiturari kalte egin barik lurra lantzea eta labore elkartua eta txandakakoa.

Gure baserritarren jarraipena ziurtatzea.

Nekazal ustiapen txikia indartzen du eta nekazal lanpostuak sortzea errazten du.

2.- Lurraren higadura murriztea.

Lur bizia, era naturalez ongarritua, granja ekologikoen elikakateko ardatza da. Granja konbentzionaletan, lurra leheneratzeko duen ahalmen naturala baino zazpi aldiz bizkorrago higatzen da.

3.- Uraren kalitatea babestea.

Granja konbentzionalek erabilitako pestizidek kutsatu egin dituzte biztanleria erdia baino gehiagok duen edateko uraren iturriak.

4.-Energia murriztea.

Gaur egun energia gehiago erabiltzen da ongarri sintetikoen produkzioan, goldatu, erein eta uzta biltzen baino. Nekazaritza ekologikoak energia handia aurrezten du egiten duen erabilera egokiari esker.

5.- Kimikarik gabe jatea.

Pestizidak organismo biziak hiltzeko asmoz egindako pozoiak dira eta horregatik gizakiontzat ere kaltegarriak izan daitezke.

6.- Nekazariaren osasuna zaintzea.

Herbizidekin lan egiten duten nekazariek gainerako langileek baino 6 aldiz errazago har dezakete minbizia. Urtean, milioi bat nekazari pozoitzen dira herbizidekin munduan.

7.- Nekazal garapenerako tresna.

Nekazaritza ekologikoak nekazari-lanpostuak sortu eta mantentzen ditu, eta nekazal jarduerari lehentasuna ematen dio garapen-prozesuan.

8.- Biodibertsitatea erraztea.

Monolaborantza nekazaritza tradizionalaren era estandarra da, plagiziden erabilera hamar aldiz handitu bada ere, uztak bikoiztu baino ez dira egin. Nekazaritza ekologikoak ordea, bere praktika tradizionalekin, biodibertsitatea errazten du.

9.- Tokian tokiko merkatuak bultzatzea.

Baserritarrari zuzenean erosiz gero, nekazaritza ekologikoren produktuak ez dira garestiago egiten eta balio erantsi guztia baserritarren eskuetan uzten dugu. Honela, ekoizlea-kontsumitzailea harremana hobetzen da.

10.- Zapore hobeaz gozatzea.

Granja ekologikoetan lurzorua bizirik eta osasuntsu egonda, landareak hobeto daude eta haiek jatean gure zaporea ere bai.

11.- Etorkizuneko belaunaldiak zaintzea.

Guk ez dugu lurzorua gure gurasoengandik oinordetzan hartu, maileguan daukagu gure seme-alabentzat baizik.

Ofertas Eskaintzak

-**Aloe Vera Xanpu 200ml:** 13,25€
2 unitate %20

-**Aloe Vera Gela 100ml:** 7,50€
2 unitate %20

-**SHIITAKE pate begetala:** 3,20€
2 unitate %30

-**LIMA txokolatezko batidoa 200ml:**
1,10€ - 2 + 1 dohainik

-**QI Te berdea mentarekin**: 3,65€
2 unitate % 30

-**ROBIS erregina-jele 1800mg**: 18,88 €
2 unitate %20 edo 2+1 dohainik

.Arreta pertsonala

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN

EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eraman zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloiaren ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublika defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europan barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekotan, lubakiak bezainbat.

HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea

HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituena. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri"k idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.

HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiaurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetza izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, Mª Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.

KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorrak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotasuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.

PASEOS POR LA CIUDAD

Hirian barrena irudimenez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, inguruari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzeko gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarelak, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.

Jarduera berriak: informa zaitez!

UNIBERTSITATEAN SARTZEARI ETA UNIBERTSITATE ORIENTAZIOARI BURUZKO KANPAINARAKO IRUDIA ETA ESLOGANA SORTZEKO LEHIAKETA

Lehiaketa hiru kategoriatan banatzen da:
Eslogana, Irudia eta Irudia eta eslogana.

Partehartzaileak:
bigarren hezkuntzako, lanbide heziketako eta goi mailako heziketa zikloetako ikasle izan behar dute.

Sariak:
DELL markako ordenagailu eramangarria kategoria bakoitzean.
Parte hartzaile guztien artean EHUko 50 elastiko eta DELL markako ordenagailu eramangarria zozkatuko dira.

Aurkezteko epea:
Lanak 2007ko apirilaren 30era arte aurkez daitezke.

Informazio gehiago nahi izanez gero etorri bulegora edo sartu www.ehu.es web orrialdean

GAZTEEN EMANTZIPAZIO PROGRAMA

Gazteen emantzipazioko bulego birtuala ezagutu nahi al duzu?

Han lana eta etxebizitzari buruzko informazio ugari aurkituko duzu. Honi buruzko zalantzak argitu eta etxetik joateko behar duzun informazio interesgarria eskuratuko duzu.

Den dena ikusteko
www.emancipacionjoven.es
web orrialdean sar zaitez!

Zein da kale honen izena?

Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Martxoko alean jarritako galderari ia 40 pertsonek erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Eider Bereau Goikoetxea** da. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den ermita edo baseliza Jaitzubia auzoan dago. Afarirako txartela Udal Euskara Batzordean jaso behar da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Gure herriko kale baten berri galdetzen dizuegu. Gaztelekutik mendi aldera doan bide bat da, askotan handik igarotakoak izango gara gehienok. Hala ere, askok ez dugu jakingo zein den kale honen izena, eta berriz ere hara joan beharko dugu kartela begiratzera.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, apirilaren 13a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.

Butroi pasealekua 1915ean

Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilero ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan, Udalak 2003. urtean argitaratu zuen 'Hondarribia iruditan' liburura jo dugu, bertan dauden altxorretako bat argitaratzeko asmotan. Hondarribiak, zenbait gunetan urte hauetan jasan duen aldaketa haundia ikusteko oso baliagarria den irudi bat da.

1915an ateratako irudi bat da eta ikusi besterik ez da egin behar zer nolako aldaketak eman diren bai hondartzaren egituran, kalearena eta zer esanik ez, etxebizitzetan.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzute. Hara joaterik ez baduzue, posta elektronikoz ere bidali dezakezue argazkia, euskara@hondarribia.org helbidera.


Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAk jasotako datuak:

Otsaila2007

JAIOTZAK

3an: **PAULA Sarasola Itxazo**, Irungo Jose Antonio eta Donostiako Bibiana Lourdesen alaba.

6an: **UNAI Kerejazu Aramendi**, Gasteizko Roberto eta Hondarribiko Monicaren semea.

8an: **UNAI Eizagirre Rodriguez**, Hondarribiko Manuel eta Donostiako Lauraren semea.

8an: **PEIO Muñoz Castellanos**, Hondarribiko Iñigo eta Hondarribiko Monicaren semea.

8an: **ENARA Vazquez Arranbide**, Bilboko Luis Maria eta Hondarribiko Garbiñeren alaba.

9an: **HARITZ Lojo Legorburu**, Donostiako Imanol eta Pasai Donibaneko Aneren semea.

15ean: **AIMAR Caro Lekuona**, Donostiako Roberto eta Lesakako Jasoneren semea.

16an: **XUBAN Olaskoaga Erro**, Hondarribiko Angel Maria eta Donostiako Maria Eugeniaren semea.

17an: **JOAN Cardona Valdajos**, Manizales-ko (Kolonbia) Guillermo Alberto eta Hondarribiko Maria Begoñaren semea.

17an: **AMETS Manterola Arozena**, Hondarribiko Iñaki eta Hondarribiko Maria Mercedesen semea.

17an: **LUR Labaien Gallego**, Hondarribiko Eñaut eta Irungo Elisaren alaba.

18an: **NAROA Ugartemendia Mellado**, Donostiako Pedro Jose eta Elgoibarko Soniaren alaba.

19an: **JON Etxebeste Gesalaga**, Hondarribiko Gregorio eta Zarautzko Anaren semea.

24an: **JULEN Zapiain Bueno**, Hondarribiko Asier eta Irungo Idoiaren semea.

EZKONTZAK

24an: **EÑAUT Labaien Zapirain**, Hondarribikoa, eta **ELISA Gallego Moreiro**, Irungoa.

HERIOTZAK

2an: **MARIA JOSEFA Sagarzazu Olazabal**, Hondarribikoa, 73 urte, Puntalean.

2an: **JAVIER MARIA Altuna Goñi**, Hondarribikoa, 66 urte, Bernat Etxepare kalean.

5ean: **MARIA Valencia Zabalza**, Tafallakoa, 94 urte, Masti kalean.

8an: **CECILIA Campo Brea**, San Vicente de la Sonsierra-koa (La Rioja), 90 urte, Zigarroa baserrian.

13an: **ANA MARIA REGINA Ewald Geb**, Alemaniakoa, 94 urte, Gibeleta etxadian.

17an: **JUAN Bujanda Caro**, Torres del Rio-koa (Nafarroa), 94 urte, Soroetaberri etxadian.

19an: **JOSE Aginagalde Lizarraga**, Hondarribikoa, 83 urte, Gaintzaberri baserrian.

20an: **CONSUELO Olazabal Mendizabal**, Hondarribikoa, 86 urte, Bernat Etxepare kalean.

20an: **DOLORES Hernan Moya**, Argamasilla de Alba-koa (Ciudad Real), 72 urte, Javier Ugarte kalean.

20an: **PEDRO Irigarai Errea**, Auritz/Burguetekoa, 95 urte, Itsasargi kalean.

24an: **MARIA JESUS Soria Jimenez**, Fiterokoa, 78 urte, Ramon Iribarren kalean.

24an: **IGNACIO Odriozola Lizarazu**, Hondarribikoa, 71 urte, Zaldunborda baserrian.

OTSAILAKO EGURALDIAREN DATUAK.
(Hondarribiko aireportutik jasoak).

Tenperaturarik gorena:	24,8º C, hilaren 16an.
Tenperaturarik beherena:	1,7º C, hilaren 3an.
Batez besteko tenperatura:	12,0º C.
Batez besteko hezetasuna:	% 69
Euri-litroen kopurua:	179,1 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 12an 31,9 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 12ko 10,20tan, 34,2 litro.
Egun euritsuak:	22 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak	1 egun
Ekaitz egunak	0 egun
Behe-laino egunak:	0 egun
Ihintz egunak:	6 egun
Eguzki kopurua:	80,1 ordu
Batez besteko presioa:	1015,5 milibar
Presiorik gorena:	1031,3 milibar, hilaren 1ean
Presiorik beherena:	998,5 milibar, hilaren 8an
Haizea >55 Km/ord.	12 egun
Haizerik indartsuena:	hilaren 14ko 10,50tan, 108 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRANDIAN OTSAILEAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 1.900,10 kilo
Sardina (Sardina pilchardus): 23.110,80 kilo
Berdela (Scomber scombrus): 689.851,10 kilo
Zapatari (Gerris): 47,90 kilo
Dorada edo Urraburu (Sparus aurata): 0,60 kilo.
Boga (Boops boops): 857,90 kilo.
Erla (Lithognathus mormirus): 2.031,20 kilo.
Korrokoi (Chelon Labrosus): 92,50 kilo.
Muxar handia (Diplodus sargus): 169,80 kilo.
Lupina (Dicentrarchus labrax): 2,30 kilo.
Bestelakoak: 13,20 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK OTSAILEAN

Altak: Jaiotzak: 14, eta kanpotik etorriak: 49
Bajak: Hildakoak: 15, eta herritik joanak: 53
Biztanle kopuru orokorra: 16.399 bizilagun.

OTSAILEKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 447 euskaraz, 1203 gaztelaniaz eta 26 bestelakoak. Guztira: 1676 liburu.
Ekarri diren liburu berriak: 38 euskaraz, 225 gaztelaniaz eta 5 bestelakoak. Guztira: 268 liburu.
Bazkide berriak: 6 gizon eta 13 emakume. Horietatik 11 heldu eta 8 haur. Guztira 19.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:
*Euskeraz:*ASBHE, Jeanes.- Ilun dago.- Ttarttalo.
*Gaztelaniaz:*TAKAYA, Natsuki. -Fruits Baskets.- Norma.

Helduak:
Euskeraz:IRIGOIEN, Joan Mari.-Babilonia. - Elkar.
Gaztelaniaz:FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

Argazkia: “Argazkiak, Hondarribia atzo”
Jose Maria Castillo